



NIGARREZ SORTU NINTZEN



*Doinuaren jasotzailea: Aita Donostia.
Non jasoa: Saran, Lapurdin.*

Bertsoaren berri

Bertso sortak azaltzen du jaio eta hiru ordura aita-amek abandonatu duten haurtxo baten heriotza. Abandonaturik, haurtxoak ondoan txoriak zituen kantari. Maria Andredenak aurkitu zuen eta zerurako bidea erakutsi zion "aingerutxoari".

Nigarrez sortu nintzen nigarrez **hiltzeko**
ez ordea munduan luzaz **bizitzeko**
jendek izanen dute erraiteko **franko**
aita ama maiteak zuek **biendako**.

